

LUIS FERNANDEZ

"Manzanas como los monjes de Zurbarán"

LUIS FERNANDEZ

Ilargitan mahaia
barnegela ilunean.

Bi uso urdinek,
hegalda nahian,
argi agindua,
argi eskainia
epelduko dute
argizari sugarrez
mahai gainean.

Sagar bi helduk
-sugar zuri-gorri-,
bi pertsonaia geldik
sortu berri dute paisaia
isileko mintzoan.

Arrosa poliedrikoari
hegoak zimeldu zaizkio
-suzko

tximeleta

zuriani

bezala-

baso grisaren uretan.

Itzalaren bestaldetik,
gauzen presentzia
bizi dute
burhezurrek
gau argiz,
adi argiz
-ermitauek gisara-
denboratik at.

("ARGIAREN BARNE-DISTANTZIAK" poema-liburutik)

Imanol Irigoien